

BEOBIDE IRUDIGILLEA

Bolara onetan Beobide irudigillea-ri buruz asko idatzi bada ere, esanaz esan, golenentzat aitzuta bezala egoan irudigillea trebe onekin genduan zorra ez da errez ordaintzeara. Eskergarria benetan Joxe Artetxe-ren dela zumaia artista onen alde. Iñork merezi bazuan omenaldirik, Beobide'k ongi merezia zuan aspalditik.

Sakona bezin ixilla izan da bere bizitzako arte lana. Ain ixilik jardunaz, berriz ere esango da Euskalerran ez dala izan artistarik. Beobide-ren Ixiltasuna degu euskal artearen eredu, ze, gure aurretikoak ere antzera ziran dirudienaz eta or gelditzen zalkigun beren agiri mutiak gure eleztan eta erri-artearen agerkeretan, beren egille izenak ixilpetik atera al izateko ere artxibuetako paper zaurretan billakatu bearez. Erri-musikaz eta erri-literaturaz degun aberastasunetik konturatu genezake plastikan ere izan genezakeala. Giro batek inguratzen bal dituzte artearen era guztiak. Noliz izango ote degu gure artista guzrien istudio on bat, zeren erri-arte orrek berakin izango zituan, obeto esan, zituari maixu bereziak ere.

Zumala'ko Oitina auzoan sortu zan Baltasar Etxabe, amaseigarren mendean, idazle ta pintorea, *Discursos de la antigüedad de la Cantabria Baacongada* (México, 1607) libururekin «vasco-iberismo» teoria sortu zutenetako lendabiziko maixuetarikoa bat. Bere emaztea «Zumaya» izenez artean ezaguna zana izan omen zuan bere erakuslea, ta bien arte lanak oso ezagunak dira México'n. Ordutik onera utseune izugarri bat izan zuan Zumala'k arte kontuan, erri-arte zerbait landuko

zan baiña obeto zirudin artista ispiritua lokaturik egoale Julio Beobide'ra arte, plastikan beintzat.

Julio Beobide Goiburua, 1891-ko abenduaren 19-an jalo zan. Aurtzartotik ekarren dibujurako ta gainera-ko arteetarako joera. Barakaldoko Salesianoetan ikasle zalarik sortu zitaion irudigintzarako grina, Sorei ezagutzean. Andik Gaiteizko Irudigille eskolara joan zan eta katedral berrian lana egin zuan. Denbora artan nobel-sariren bat jaso zuan sariketarik atsegin ez bazitzalkion ere. Gerago, sari oieri esker, San Fernando Akademian bekaz estudiatu zuan, ta ondoren maixu on bat izan zuan, Kintin de la Torre Bilbon. Igaztoko urtean il zan artista au biotzbiotzez maite zuan Beobide'k, ta usete det Zumala'ko erriak Julio esker-tu bearra duala gaur bere parrokiari Kintin'en «Kristo» eskultura zoragarri bat izatean.

Julio, bere gogozko lanak, erretatuak eta imajiñak izan ditu. Batez ere imajiñagintzan agertu du bere nagusitasuna.

Frantzia eta Italia ibilia da. Paris'en Pérez Comendador'ekin oso adiskide egin zan. Europan orduan ziran eskultura eskolak ezagutu ondorean itzuli zan jaioterrira eta lanari ekin zion. Zuloaga eibartar pintorea izan zuan beste adiskide min bat eta alkarrak asko lagunduek dira biak. Nik Beobide Zuloaga-ren erretatu batetik ezagutu nuan, eskultore baiña antz geliago artzen nion pentsalari batena, profeta itxurazko pentsalari mistiku batena, ta bera personalki ezagutera eldu nintzanean oartu nintzan bazuala biatarik zerbait. Atsegingarriak izan dira

geroztik berakin izan ditudan solasak.

Bere azken «Kristo» egiten ari dala, zenbait aldiz bisitatu det «Kresala»-ko bere estudioan. Beti eskatu izan du bisitatzaillearen irizkia. Beti pentsatu izan dut: zelan obetu? Baiña ala ere, urrengo joan naizenerako obekuntzak nabaitu ditut. Olakoa bai da bere imajiñagille egizkoa.

Zortzigarren «Kristo» edo badu egiten ari dana. Beren arteko onenak: Añorga'ko «Kristo-etzana», Zumalaian Zuloaga-ren Santiago eleizan dagoana eta Santa Cruz del Valle de los Caídos'en arkitzen dana. Azken au, Zuloagaren enkarguz egin zuan generalismoarentzat, ta gerago arek eraman zuan orain dagoan tokira. Bertan dagoan Irudi bakarra da eta egunero eundakak edo millakak personak ikusten dute ta badu ortatik bere alde ona.

Trintxerpen dagoan Karmengo Ama eta Añorgako Ama-Birjina ere bere imajiña onen artean aipatu bearezkoak ditugu.

Lanik gelenak zurean eta arrian egin ditu. Bere gogozko eskultoreak ditu Enrique Casanovas, eta Viladomat. Berak dionez, katalan oiek irudigintzarako austrai obek omen zituzten, beren arteko giroz lortua. Mateo Iñurria, José Clará eta Migel Blay ere oso gogokoak zituari. Eta, berdin, klasikoetarik Donatello, Luca della Robbia, Verrocchio eta Michelangelo Buonarroti. Gaiñera, asko gustatzen zalkio Egipto, Grezia eta Erromako arte zaarrek ere.

Beobide itz gutxiko gizona da. Irretzen zalon itza, ondo pentsatua eta ondo neurtua. Gaiñera leun eta zeatz mintzatzen da (jakiña, euskaldunerri beti euskeraz). Bere agoan, Zumalaiko auskalkiak, badu goxotatun aski. Zintzelez landuta bezalako esaera batean agertu zidan: «Nere lana det nere bizitzaren errazola».


Beretat, gizonen artean ez da ohorezko mailarik. Erriko arrantzaleak ditu adiskiderik onenak. Ta, bear bada orrek ere badu bere errazola, maiz bere irudietarako moduluak izatetik aparte, ze, bein berrari galdetu nion batean, it Irudigillea izan ez balitz zer izatea naiko zuan, eta, «mariñela», erantzun zidan.

Beraz, ez da arritzekoa erriak sin maite izatea gizon au. Ta maitasun au bizi agertu zuan Zumalaiko erriak lengo ingandean bertako sel alkartet eraturako omenaldian. Erri oso an zan berakin. Guztiak zerbait eta nolabait agertu nai zuten Julio'rentzatko maitasuna.

Jenderik umillenenaren borondateak irabazi dituan gizonaren alde ez dago ezer esan bearririk, umillenen borondatezko eskeintza ori da gorazarre-rik onena.

Mundu onek urri ematen dituan gizonetarikoa degu Beobide irudigillea. Esguardean duan lana bukatu ondorean ere oraldik urte askoan nai genduke gure artean.

J. SAN MARTIN



Maiatzaren 3'garrenean sortu zan

Euskal - gazteentzako iriki-berri dan jakintzarako atea

KURSAAL NAGUSIKO ANTZERTI-KAMARA

Donosti'ko etxe zarr batek, ondatu baiña lenago, Teatro-zaleei aterpea eskeini nai die, jakintza-sail ontan bideak irikiat. Zarpailutako egon-leku egoki baten barruan alako toki egoki bat antolatatu dute orturao. Agertokiak amar metroko zabalerata bost metro sakona izango du. Aretoak irureun bat ikusle artzeko lain leku izango du. Sendi-itxurako txokoa izango da.

Euskaldunok, lana, teknika ta diruaz baliatzen badakigu; baiña askotan, taldean gabiltzanean, eztegu bere artan aintzat artzen jakintza-saila; ta teatroa, jakintza-bide jatorrenetako degu.

Kursaal'eko Antzerki-Kamara berri au, asmo bikaiñez sortua izan da. Teatorako zaletuak dabilzan taldeak, (langilleak, ikusleak, naiz auzoetako taldeak eta abar...), an izango dute bere lana erakusteko aukera. Ikusleak ere, butaketatik ikusi al izango dituzte, teatrogille zaletuak eskeintzen dizkieten ikusgarriak.

Asierako lana erabakia dute: astean iru aldiz eskeiniñko dituzte beren ekinaldia: ostegun ostiral eta larunbatan, aratsaldeko zortziretan. an zuzen ere. Lenengo ekin-saio onetan, euskerazko antzerki batzuek ere sartuko dira: "Oillotege gaiñeko Dorrea" ta "Ordu-ordaintzaille" izenekoak. Teatro aukerak Bergara'ko Teatro-zaleak emango dituzte.

Euskal-Show bat ere eskeintzekotan dira, Jon Oñativia'k antolatu eta tajutua.

Bide batez, Gipuzkoa'ko Teatro-Zaleei ainbeste lagundu izan dien "Diario Vasco"ko teatrotzaille, Teodoro Goñi Aiala'koari orotzako gorasarrera eskeiniñko diote. Beraren izenean, Kursaal'eko Teatro-Kamara'k oraindik inun ikusi eztan Aiala'ren antzerki bat tajutuko du. Lan ontan aurreneko paperak, Teresa Gascon eta Frantzisko Hernate'k egingo dituzte. Ortik gora, erderazko ta prantzesezko beste antzerki-lan batzuek ere, eskeiniñko dira. Ortarako Nanterre'ko QQProductions d'aujourd'hui' taldea etortzekoa da.

Guzia osatzeko, Alfredo Landa, donostiar antzerkigille bizibideko sonatuak, bere lengo lagunekin, (Arostegitarrak, Eufenio Castellano ta Maribel Escribano'rekin beste lan bat ager-araziko du teatro saillean. Guzintzar egoki etorriko da, onelako txoko bat aukerari izatea bai teatrogille gazteentzako, ta bai ikusleentzat ere.

M. I. A.

